

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Vitoria-Gasteizko autobus-geltokiko lurpeko aparkalekuan (Euskaltzaindia plazan) ibilgailuak alokatzeko 50 plazaren erabilera pribatiboa emateko kontratua esleitu gabe uztea, eta zuzeneko esleipenerako epea irekitzea

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak ekainaren 5ean egindako bilkuran:

Vitoria-Gasteizko autobus-geltokiko lurpeko aparkalekuan (Euskaltzaindia plazan) ibilgailuak alokatzeko 50 plazaren erabilera pribatiboa emateko kontratua esleitu gabe uztea, eta zuzeneko esleipenerako epea irekitzea

Aurrekariak

Vitoria-Gasteizera sartzeko bide nagusienetakoa da autobus-geltokia. Garraiobide batetik bestera modu azkar, erraz eta zuzenean aldatzeko aukera izateak (hirira etortzeko autobusetik alokairuko ibilgailura, bertatik modu autonomoan zirkulatu ahal izateko), Vitoria-Gasteizera errepidez etortzen diren pertsonen konektibitateari eta mugikortasunari aukera berria emango diola ulertzen da, eta hiriaren interes publikoari mesede egingo diola.

Ibilgailu-alokairuen enpresari amaitu egin zaio baimendutako aldia, eta autobus geltokiko buruaren txostenean jasotzen denez (dosierrean jasota dago), komenigarritzat eta egokitzat jotzen da sektoreko enpresei berdintasunezko aukera emango dien prozedura bat hastea, lehia-keta publiko baten bidez.

Dagozkion txostenak egin zirelarik, 2026ko martxoaren 27an erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak jabari publikoko emakidarako lizitazio-prozesua abiaraztea eta baldintza-agiria onestea.

Horri jarraituz, legezko izapide guztiak egin dira lizitatzeko eta proposamenik onuragarriena hautatzeko.

Balorazio-batzordea eratu ondoren, merkataritza-sozietate honek sinatutako plika bat aurkeztu dela berretsi da:

S**** (B-07*****)

Dena dela, baldintza-agirietako 15.3 klausulak hala xedatzen du: "Lizitaziorako dokumentazioa bi gutun-azaletan aurkeztu beharko da —A eta B—, itxita, biak ere kanpoaldean identifikatuta eta lizitatzailleak edo ordezkariak sinatuta".

Espedienteko dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da 2026ko maiatzaren 28an proposamen ekonomikoari (A gutun-azala) dagokion dokumentazioa telematikoki jaso zela (erregistro-zenbakia: 2026489684), hau da proposamen hori irekitzeko aurreikusitako egintza baino lehen.

Horrenbestez, eskaintza ekonomikoaren edukia aldez aurretik ezagutu da, eta horrek urratu egiten du lizitazio-prozedurak arautzen dituen proposamenen sekretuaren, lizitatzailen arteko berdintasunaren eta objektibotasunaren printzipioak.

Adierazitako guztia kontuan izanik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 10. eta 11. apartatuetan ezarritakoaren arabera eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Kanpo uztea S***** merkataritza-sozietatearen plika, proposamen ekonomikoa alde aurretik ezagutarazteagatik.

Bigarrena. Esleitu gabe uztea ibilgailuak alokatzeko enpresei autobus-geltokiko aparkalekuen jabari publikoko emakidak esleitzeko prozedura, ez baitago baliozko eran onartutako proposamenik.

Hirugarrena. Baldintza-agirietan eta aplikatu beharreko ondare-araudian aurreikusitako zuzeneko esleipen-prozedura hastea, gehienez ere urtebeteko eperako, prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko den egunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta aurka egiteko eskura dituzten bideak jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 5ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO